



Euskararen aldeko konpromisoa adierazteaz gain, eredu energetikoa "demokratizatzeke eta eraldatzeko" eskatuko dute Korrikan. ALEA

1.110 zio bidezko norabidean

Bidezko trantsizio energetikoa aldarrikatuko dute Korrikan Goienerreko kideek. Lautadako lehen kilometroa egingo dute, bertan azken urteotan proiektu erraldoi asko martxan jarri nahi direlako.

ERREDAKZIOA

Martxoaren 18an, Gasteiz barrenean arratsalde eta arrats gehiena eman ostean, Korrika Lautadan sartuko da, eta une horretan egingo diote euskarari ekarpen berezia Goiener kooperatibako kideek. "Azken urteotan bereziki, enpresa handien esku dauden proiektu erraldoi asko egin nahi izan dituzte Lautadan, eta, horregatik, guk bertan bidezko trantsizio energetikoa aldarrikatu nahi izan dugu", azaldu du Goienerreko kide Ekain de Olanok. "Zorionez, proiektu horien kontra herri

mugimendu bat sortu da ere, eta haiekin batera guk ere aldarrikatu nahi dugu aldaketa bat beharrezkoa dela, baina aldaketa hori ezin daitekeela jarri etekin ekonomikoa baino nahi ez duten enpresa handien esku", aldarrikatu du De Olanok.

**ALDAKETA ENPRESA
HANDIEN ESKU UTZI
BEHAR EZ DELA
BABESTEN DUTE
GOIENERREN**

Hortaz, 23:30ak aldera, 1.110. kilometroan lekukoa hartuko dute, Ilarraza parean. Egun horretan euskararen aldeko konpromisoa modu agerian geratuko bada ere, De Olanok azaldu du egunerokotasunean gauzatzen dutela euskararen aldeko jarrera. "Adibidez, euskara ez dakiten kideek ikasteko aukera dute lan orduetan, kooperatibak finantzatuta. Gasteizko bulegoan bertan halako kasu bat dugu".

Enpresa handiek ez bezala, Goienerrek "inguru natural zein sozialean ondorio positiboak izango dituen bidezko

trantsizio energetikoan" egin nahi du ekarpena. Eskuratzen diren onurak herrietan islatu behar direla diote. Zeregin horretan, pertsonak eta ingurumena ardatz hartuko dituen trantsizioa izan behar dela gaineratu du Aritz Uribe Etxebarria lankideak.

Sorkuntzan ere

"Autokontsumo kolektiboaren bitartez, tokiko garapena sustatu nahi dugu. Izan ere, guztion artean eredu energetikoa demokratizatu eta eraldatu nahi dugu. Besteak beste, norabide horretan doaz energia berriztagarrien komunitateak", erantsi du Uribe Etxeberriak. Goienerreko kideak azaldu du helburu horiek nola lortzen dituzten. "Sistema energetikoan parte hartzeko aukera ematen diegu gure kideei. Batetik, gurekin energia berriztagarrietan oinarritutako argindarra kontratatu daiteke. Baina berriztagarrien sorkuntzan ere parte hartzen dugu, Nafarkoop kooperatibaren bitartez".

Modu berean, De Olanok mahai gainean jarri du Goienerren hirugarren hanka bat. "Gure kideei militatzeko espazio bat eskaintzen diegu. Besteak beste, lagundu eta parte hartu ahal dute gure erakundearen barne jardueran, hitzaldi eta jardunaldietan, edo batzar orokorrean erabakiak hartzen". Dioenez, helburuetako bat da kideak "aldaketaren parte aktiboa izan daitezela". Argi dute Goiener sortu zela "subiranotasun energetikoan aurrera egiteko tresna bezala", eta datorren astelehenean ere hori ekarriko dute gogora, Korrikarekin batera. ■■■

Igualdad de **GENERO** berdintasuna



Hitzaldiak · Antzerkia · Musika · Zinema



Martxoak 15, 19:30ean

Umorea

Patricia Sornosa: Desaparezca aquí

Sarrerak **3€** fundacionvital.eus

Apirilak 5, 19:30ean

Andrea Ros & Paola Roig
La vida secreta de las madres
Live show

Sarrerak **5€** fundacionvital.eus



Apirilak 10, 19:30ean

Hitzaldia


Dorleta Ortiz de Elguea
Artistas, musas, agitadoras culturales

Sarrera librea aretoa bete arte

Apirilak 12, 19:30ean

Hitzaldia
Mónica Alario Gavilán
Pornografía: escuela de violencia sexual

Sarrera librea aretoa bete arte



Vital Kulturunea

Dendaraba M.G. Bakea kalea, 5-1. solairua